

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko uztailearen 3a


Egunkaria

Gehigarri honetan



Lesaka eta Azkarate • Bestelako Sanferminak, ezezagunak baina mundialak.
Lupe Ordoki eta Kotte lantzi • «Adin tarte guztiek dute lekua Lesakako sanferminetan».

Santxotena eskultorearen agot harrotasuna



• JACOBA MANTEROLA

Gaur, arratseko seietan, Xabier Santxotena bere Bozateko etxearen ateak irekiko ditu. Museo bihurtu du bere arbaso agoten etxea eta han egonen dira bere obrarik onenak. Eskultore arizkundarrak harro erakusten ditu ere bere aitaxiaren lantegia eta amatxiaren sukaldea.

Lesaka • Sanferminak, ez bakarrik Iruñean

Igandean hasi eta hurrengo larunbata bitarte bestatan egonen da Lesaka

Inoiz baino sanfermin besta luzeagoak izanen dituzte lesakarrek aurten. Ohi bezala, musika, dantzak eta kaleko giroa gailenduko dira astebetetz.



Mutil dantza, esku dantza eta zubigaineko dantza hutsegín ezinekoak dira Lesakako sanferminetan.

• JON ABRIL

BESTAK OFIZIALKI ASTELEHENEAN hasiko badira ere, igandetik hartuko zaio besta usaina Lesakari. Euskal Herriko lur gaineko sokatira txapelketa jokatu da igande goizean. Arratsaldeko 5etan pilotalekuan, Irain Dantza Taldeak urteroko erakustaldia eskainiko du, eta 8etan plazan, Bortzirriak, Baztan eta Malerrekako I. Trikitixa txapelketako finala jokatu da.

Altxaferua astelehenean, hilak 6, botako da herriko etxeko baloioak, eta horren ondoren txistulariak, soinuariak, trikitilariak eta haur tikiak danborrada karririkaz karrika ibiliko dira. Arratsaldeko 6etan, pilotalekuan dantzan arituko dira Tantarumairu Dantza Taldekoak, urtero legez. Gauerdian, Gaubela taldearekin dantzaldia izanen da, eta Berako Zizkuitz txaranga karririkaz karrika ibiliko da.

San Fermin egunean ezpata-dantzarien meza isila, meza nagusia eta prozesioa izaten dira goizeko zereginak. Eguerdian, berriz, hain ezaguna bihurtu den Zubigaineko dantza eginen dute Onin

errekaren bazterretan. Herriko gazteen artean ohitura da goizeko ordu txikietan hara jauzi egin eta uretan blai eginda ibiltzea.

Zubigaineko ospetsuan orain 500 urte pasatxo sinatutako bake hitzarmena ekartzen da gogora. Onin ibaiaren alde banatan dantzatu zuten orduan errekarren bi aldeetako bizilagunek. Egun, prozesioaren ostean, sanferminen irudia karririkaz karrika ibili ondoren, dantzariak eta herriko agintariak erreka bazterrean jaisten dira dantza egitera.

Gazteentzat, peñen eguna

Asteazkenean peñen eguna ospatuko da. Egun berezia izaten da

bertako jendearentzat. Arratsaldeko 6etan peñen kontzentrazioa egin ohi dute, eta aurten izen nagusia Kalaxka peñak eramanen du, 25 urte baitaramatzate peña horretako kideek Lesakako sanferminetan besta egiten. Iluntzean Egan Berria ariko da plazan.

Ortzegunean haurren eguna izanen da, eta tikiak makina bat gauza eginen dituzte egun osoan zehar: danborrada, kartsak, puzgarriak, amerikar pista, tren... Egun horretan bertan, profesional mailako pilotarien partiduak izanen dira herriko pilotalekuan, eta arratsalde eta gau partean Gaubela taldea ariko da.

Ortziralean, ezkonduen eguna izanen da. Betizuak, txirindula-

ritza froga, jota lehiaketa, eta bertso saioa izanen dira egunean zehar. Bertso saioan Andoni Egaña, Xebastian Lizaso, Iñigo Olaetxea, Xabier Silveira, Jexux Mari Irazu eta Jon Maia ariko dira. Iluntzean Irailerako 6 taldea ariko da plazan, eta atsedendian Dantzaka taldeak areto dantzen erakustaldia eskainiko du.

Ohikoa izan ez arren, «pobredemia» larunbatean, hilak 11, eginen da, larunbatera arte luzatu baitituzte bestak. Betizuak, saskibaloio txapelketa, pilota partiduak eta Jator taldearen dantzaldia izanen dira 98ko sanferminei agur errateko.

→ Jon Abril

Azkarate • Bihar hasiko dira sanferminak

AZKARATEKO SANFERMINAK, BERE apaltasunean, bereziak ere badira. Bihar, seietan jaurtiko da jalei hasiera emango dien suzeria. Ondoren, haurrentzako jolasak izango dira herriko pilotalekuan. Gero, gaueko bederatzita eta erdietan, herri afaria izango da Balerdi elkartearen, eta ondoren, gauerdian hasi eta goizalde arte, dantzaldia izango da Jauregi eta Berastegi trikitilariekin.

Igandean, bestalde, eguerdi aldera, eta bezperako pasatzeko, txikiteoa izango omen da herriko elkartearen. Bestalde, zazpietarako aizkora apustu mundiala iragarri dute. Egun osoan zehar, Jon Ansorregi eta Andoni Larrañagaren ardura izango da musika.

Egunik garrantzitsuenetan, santuarenean, Astunaldetan dantza taldearen emanaldia eta Agirre eta Lazkano bertsolarien saioa izango dira goizez. Arratsaldean, berriz, herri bazkariaren ondoren, Leiza eta Atxa izango dira, aurrez aurre, lau terdi barruko afizionatuen arteko pilota partiduan. Gero, bertsolariak hartuko dute lekukoa berriro ere. Baina, zalantzarik gabe, ekitaldi garrantzitsuenak, goizeko hamaiketan burutuko dena izango da, ordu horretan abiatuko baita herriko plazatik, Santuaren ermitarainoko prozesioa. Laja trikitilariaren eta dantzarien laguntzaz, makina bat fededun hurbilduko da baselizaraino. Izan ere, Bedaio edo Amezketa bezalako herrietako jendeak esku hartu ohi du.

→ Urko Aristi

bidean begi

MAITE URKIA



Uda gainean dugula, oporrak eta sanferminak atean, egunak oskarbi esnatzea desiratzen dugu, edo beste la esanda, esnarazi egiten gaituzte garai honetako egun argiek, nahiz eta, gizakiak mundu zabalean bereak dituen plazerren ondoko zorigaitzengatik mina jasatetik babesten gaituen hesi ikustezina iragaitzen duten batzuetan zoritxar hurbilekoek. Hemen, gugandik hurbil, hogeita bi urteko mutil eskalatzaila trebe bat etxe batetik amildu zen lanean ari zela, ezbeharrean, eta hemezortzi urteko beste mutil batek bere bizitzari amaiera eman zion egun asko ez direla. Eta halakoak

Uda gainean

egunkarietan irakurtzen ditugunean señ ezkuak esaten digu orrialdea pasatzeko, bizi behar badugu ezin gaituztela munduko zorigaitz guztiek hunkitu, baina batzuetan sena ohartu orduko ukitu gaitu irakurri edo entzundakoak eta orduan bihotz zimikoa sentitzen dugu. Hala ere, gure inguruko entretenigarri ugari ateratzen gaituzte hunkipen horretatik, eta gogoeta txiki baten ostean geure egitekoei lotzen gaitzaizkie asaldurarik gabe, horixe eskatzen baitu bizitzak.

Eta hala izanik ere, udan murgildu baino lehen, ezin bi mutil horiek bederen gogora ekarri gabe utzi, inoiz hurbileko galeraren bat bizi izan

duten batzuei behintzat bereziki sentibera gertatzen baitzaie besteekiko begirada, agian sobera izan arren.

Gaur ostirala, eta astelehenean Iruñetik haratago heltzen den festak bazter ugari harrotuko du, bazter zein bihotz, eta beti bezala, atsedean emanen zaie zeregin, behar eta kexa guztiei. Ahal duenak ahal duena eta nahi duenak nahi duena, jakina, ahala eta nahia nahasian izanen baitira bizitzaren legerik argiena.

Besterik ezean, bada, eguzkia goialdean, kasu eman ezazue hurrengo egunotan zezen beltzekin!

Lizarra • Eskaintza oparoa dakar udak

Musika, dantza, antzerkia, hitzaldiak eta ikastaroak aukeran

Udan ez da izanen aspertzeko astirik. Aisialdirako aukera ugarietz gain, Lizarrako Udalak udako jarduerak kulturalen egitaraua aurkeztu berri du.



Kepa Junkera Lizarran izango da abuztuaren 15ean, Nafarroako Jaialdian.

● XOUSE SIMAL

UDAKO JARDUERA KULTURALEN Egitaraua Lizarrako Udaleko kultura, euskara eta gazteria batzordeak antolatu du. Egitarau zabala, askotarikoa eta oparoa da, eta jarduerak ezagutzera emateko 3.500 liburuxka argitaratu dituzte. Bertan, orain arte aski ezagunak egin diren jardueretz gain —Erdi Aroko Ikerketa astea, Dantza Folklorikoaren Nazioarteko Jaialdia, Nafarroako Jaialdiak edo Aintzinako Musikaren Astea—, berrikuntza bat berri ere ematen da: *Elkarguneak* izeneko tartearen berri hain zuzen ere. Elkarguneak uztailearen 14tik 17ra bitartean osatuko den musika jaialdia da. Aurrenekoz egingen den musika emanaldi honetan, herrialde ezberdinetako musika taldeek hartuko dute parte. Gauzak horrela, uztailearen 14an Txanbela taldea izanen da entzungai Foruen plazan, gaueko 22:00etatik aitzina. Hurrengo egunetan honako taldeak igoko dira tranpaldogainera: La Bazanca Gaztelako musika taldea, Faubourg Borgofniakoa eta Bekecs Hungariakoa.

Hasi berria den uztaileko hila-bete honi dagokionez, aipatzekoa da Gustavo de Maeztu museoa ikusgai egonen den Ignacio Zuloagaren erakusketa. Halaber, hilaren 22, 23 eta 24a bitartean Dantza Folklorikoaren Nazioarteko Jaialdia ospatuko da Foruen plazan eta 27, 28 eta 29an Kilkarra antzerki taldeak bere azken lana taularatuko du: *Habitacion 689* alegia.

Abuztuan Nafarroako Jaialdiak Lizarrara etorriko dira. Los Llanos pasealekuan eta hiru egunetan zehar artista bereziak ikusteko parada izanen da. Abuztuaren 13an Andaluziatik etorritako Manolo Sanlúcar eta Carmen

Linares ariko dira; hurrengo eguean Isamel Lok Senegaldeko doinu biziak ekarriko ditu, eta 15ean Kepa Junkeraren eskusoiuak alaituko du Los Llanosko giroa.

Era berean, Los Llanos pasealekuan zinemari tarte zabala eskainiko zaio aipatu hilabeteetan. Alde batetik, zehaztu gabeko filmak eskainiko dituzte; eta bertzetik, Montxo Armendariz zuzendariaren hainbat pelikula ere ikusi ahal izanen dira; esate baterako, *Tasio* eta *Secretos del Corazón*.

Irailan, beriz, dagoeneko udaz uda egiten diren jardueretan ohi-koak diren bi ekitaldi dira aipa-

tzeko modukoak: Antzinako Musikaren Astea eta Sefardi Astea. Aurrenekoa hilaren 8tik 13ra bitartean burutuko da San Miguel elizan; bigarrena Gustavo de Maeztu museoa izanen da.

Azkenik, esan beharra dago, bai Almudi Kultur Elkarteak zein Gazteria Batzordeak ikastara aunitz antolatu dituztela udan zehar egin ahal izateko. Hona hemen ikastaroen zerrenda: zuraren lanketa, tapizak, bitxigintza, eskulanak, kartelgintza, txotxongiloak, sendabellarak, tai-chi, perkusioa eta munduko dantzak.

→ Kristina Berasain



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Kulturarako eraikin gutxi Sakanan

Kultur ekitaldiak egiteko eraikin gutxi dago Sakanan, **Guaixe** hilabetekariaren azken zenbakiaren arabera. «Etxarriko Kultur Etxearen inaugurazioa abiapuntu bezala hartuta, herriz herri galdetu dugu instalakuntzei buruz. Irurtzun eta Altsasu herri handienak izanik, kultur koordinatzaile baina daukate, eta beraiekin bildu gara beren herrietako kultur diagnostia egiteko. Herri gehienetan, udaletxea edo herriko etxea erabiltzen da kultur beharretarako, hala nola, Arbizu, Iturmendi, Bakaiku, Lakuntza, Urdain edo Ziordin. Herri hauen artean ezber-

dintasun ugari dago, Arbizun, Lakuntzan eta Iturmendin, adibidez, batzar gela erabiltzen da besterik ez dagoelako, baina Bakaiku, Urdain eta Ziordiko udaletxeetan gela asko daude kultur ekitaldi bat egiteko garaian aukeratzeko».

«Irurtzunen Kultur Etxea dago, eta Altsasun Gure Etxea. Aipagarria da Olaztin Kultur Etxea egiteko asmoa dagoela. Udalak herriko etxe zahar bat erositako dagoeneko horretarako. Gaztetxeak ere kultur guneak dira, gazteendako batez ere, beraz ezin ditugu ahaztu Irurtzuno Larrazpi, Lakuntzako Bil-

Toki, Etxarri, Urdain, Altsasu, Olazti eta Ziordiko gaztetxeak».

Altsasuko eta Irurtzuno kultur koordinatzaileen iritzia jaso du **Guaixe**-k. «Gure Etxea txiki gelditu zaigu, gela gutxi daude. Hau dela eta, kultur instalakuntza guztiak sakabaturik daude», dio Altsasuko kultur koordinatzaile Mari Karmen Goienetxek. «Instalakuntza onak edukitzea oso lagungarria da ekitaldiak antolatzeke garaian; Irurtzunen Kultur Etxea ongi dago ekitaldiak antolatzeke», azpimarratzen du, bestalde, Irurtzuno kultur koordinatzaile Patxi Mikeok.



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Sarean, arraunean

Demagun New Yorkeko udale-txeak web orrialde batean Manhattanetik paseo birtual bat emateko aukera ematen dizula. Egunkarietan eta aldizkari espezializatueta horrela irakurriko genuke, gutxi gora behera: «Paseatu zaituz hiru dimentsiotan New Yorketik, etxetik mugitu gabe!». Interneten ibili ez bazara, agian pentsatuko duzu mundu miresgarri bat alboratzen ari zarela, XXI. mendea hortxe dagoela eta zu entzertu gabe, alegia. Lasai. Ez da horrela. Web orrialdeak jada XXI. mendean baldin badaude ere, guk XX. mendean segitzen dugu eta, azalpen honetan ikusi ahal duzunez, etorkizunera bidaiatzea ezinezkoa da.

www.newyork.org sakatu eta zazpi edo zortzi minutuz zain egon beharko duzu pantailan zer edo zer agertu arte. Horri Interneteko *geldotasuna* deitzen zaio eta arrazoiak asko dira: telefono hariak, zure ordenagailu txikia eta modena XX. mende-koak dira eta ezin dezakete modu azkar batean orrialde hortan jarri dituzten hiru argazki eta animazio bat jaso. Ditosozko animazioa ikusteko, polizi bat besoak mugitzen esate baterako, hiru minutuz egongo zara zain. Azkenean poliziaren azpian dagoen leloa, *3D Walk*, ikusi eta sakatzen baduzu beste orrialde batera pasatuko zara (minutu gehiago). Orain azalduko dizute zure ordenagailuak zer behar duen paseoa emateko, *3Dplug-in artxiboa* zure sisteman egon behar dela hain zuzen ere, eta artxibo hori deskargatzeko helbide berri bat eman-goz dizute. Berriz sakatu, berriz zain, beste orrialde bat (bere animazioarekin noski) eta hamabost minutu bete dituzu jada deus ere lortu gabe. Azkenean artxiboa deskargatzeko klikatzen baduzu seguraski honelako mezu bat agertuko zaizu pantailan: 30 minutu falta dira artxibo osoa jasotzeko. E?! Amorratua eta hoge minutuz paseo birtualaren atzetik ibili ondoren bertan behera utziko duzu. Ikusten duzunez XX. mendean segitzen dugu: Iruñean zaude, ordenagailutik kable bat ateratzen da telefonora, San Cernineko kanpaiak entzuten dituzu, hamarrak, gero San Lorentzokoak joko dute beti pixka bat beranduxeago, tabakorik gabe zaudela ohartzun zara. Ordenagailua itzali eta bazoaz. Benetakoa paseoa emango duzu, XIX. mendean bezala.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Jose Ignazio Gerriko eta bere 'saiakera'

Ez da Gerriko euskal literaturaren unibertsoaz arduratzen direnei orrialde gehien zirriborraz diene egileetarikoa, tamalez, nahiz azken urteetan neurri batez, hutsune hau betetzen ari dela iduri dezakeen



Ez du honek esan nahi Gerrikoren lanak ez duela interesik sortu, eta arras ona da, orohar, idazle honen gainean nagusitu izan den juzkua. Alabaina, urtetan argitara izan gabe bere lan ia bakarria arrazoi guztiak direla eta, egun ere, arras eskurgaitza zaigu, ezpada liburutegi zenbaitetan, 1858.eko edizioa dagoen bakarria baita, eta kritiko guztiak ados diratekeen arren, oraino ez du klasikoaren argitalpen berrietan tokirik egin.

Gerriko berari buruzko ikerketa saiorik ere berandu etorri zaigu, eta hobegarria delakoan gaude. Alabaina, eskergaitzokoak ginatke lan honek uxatu dituen ezjakintasunak onartuko ez bagenu. Jose Ignazioren izena daraman sariketa berean irabazle, Pello Joxe Aranbururen taldeak beste sariketa-lan baten ardatza izan du Gerriko, eta horri zor behar zaio segurarraren gaineko argi-illunak gutxi gehien garbitzea.

Jose Ignazio Gerriko Enartariaga Seguran jaio zen 1740.eko urtarrilaren 4an, nahiz bizitza gehiena amaren herrian eman, Mutiloan alegia. Gazte zela, 13-14 urterekin gutxi-goiti-beheiti, Madrileran joan zen amaren aldetikoa osaba batengana, Jose Enartariagarengana, hots, zeina, mailegu etxeko nagusia izateaz gain, Oñatiko kontearen artxibazaina baitzen. Osabaren bitartez hainbat jauntxo eta handiki ezagututa, azkenez Ataungoa zen Felipe Altolagirre Zufiriak, Donejakueko ordenaren zaldunak eta Indietako kontseilu gorenaren kontatzaileak, bere gain hartu zuen bulegari. Orduan izan zen teologiari ekin zionean, San Isidroko ikastetxean, 1762.ean Mutiloko benefizialdua zen Juan Telleria hil

ostean, hartan sartzeko eskakera egin zuen, ber urtean lehenbiziko tonsura Miranda Argazengandik jasorik, haatik apezteari oraino ez zion heldu, eta 1764.ean eginen zuen, Mutiloko benefiziadutza jasotzearekin batera.

Asko idatzi bazuen ere, lan bakarreko egilea izan zela esan liteke lasai aski, *Cristau doctrina guztia*ren *esplacacioaren sayaquera euscarazco plastica edo doctrinetan partiturik*. Ezagun da honakoa ez zela bizi zeno argitara eman - 1824.eko otsailaren 23an zendu zen-, eliz zentsurak gainditu zituenean, dirua arazoa izan baitzuen, eta geroago ere, Gaztelako kontseiluak beharreko baimenak emateko lan osoa itzultzea eskatu baitzion, bestalde, gure txoko honetan aspaldian jada ekarria dugun zioa, eta horregatik ere, erepikatuko ez duguna.

1847-1849 urte bitartean Gipuzkoako apez batzarreak argitarabako zenbait euskal eliz-lan ateratzeko erabakia hartu zuen. Asteasuko Agirre-aren lanekin batera, baita Gerrikorena eta Felipe Agustín Otaegiren predikuak zuden. Alabaina, eta Iruñeko apezpikuaren baimena jasorik ere, ezin izan zen Gerrikoren lana, ez eta Otaegirena ere, Agirrearenarekin atera diru faltaz. Itxaron beharko da, beraz, 1858.era arte, noiz emakume batek utzitako diruari esker, Gerrikoren liburua estrainez atera baitzen.

Gerrikoren liburua kristau ikasbidearen azalpen luzea da, jaiegunetako mezetako sermoietan emana, apaizek pulpitotik irakurritz eliztarrei azaltzeko eran. Bi alekiak dira, eta osotara 114 dotriña edo sermoi dira jasotzen direnak, hoge minutu inguruan esatekoak, eta guztietan galdere-erantzuna erabide zahar-eraren bitartez emanda, eta nahiz erantzunak neurrigabe-koak iduri, ez du galtzen honen funtsa zuzendua, bada, Euskal Herrietan nahiz Gaztela zaharrean erabiltzen zen Asteterenean oinarria baitzuen. Lehenbiziko liburukian 53 prediku daude, dogma eta fedeko egiak nahiz oitotza




gai nagusiak dituzten bizitatan, eta hauen aurretik, Gerriko-ri buruzko sarreratxo laburra eta Gerrikok berak ondu erdal sarrerara daude. Bigarren liburukian 61 sermoi daude, eta

moralak nahiz sakramentuak izkiriagai duten beste bizitatan ere badaude.

Ez zen orain arte aipatu Gerriko izen horretako euskal idazle bakarria. XIX. mendean Jose Ignazio Gerriko Urkiola josulaguna izan genuen. Zeraingo aizpea auzoan 1806.ean sorturik, Oñati eta Iruñean irakasle eta Madrilen nahiz Belgikan nobizio maisu ihardun ostean, Filipinetara joan zen misiolari, eta Manilan zendu zitzaigun 1883.ean. *Jesu-Cristok gurutzean esan zituen azkeneko zazpi-itzak* idatzi zituen *Euskal Erria* aldizkarian agertu zirenak.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Mihia haragi bizitan

Orain bizpairu hilabete, Erdi Aroko jaunen Ederra deitura nobleko maisu batek, euskarari buruzko letani horietako bat eskatu zidan, eta honako erdiplajio hauxe atera niri. Barkatuko (edo estimatuko?) ahal dit Motzak. Gero jakin nuen Sara delako aktorea txintxoak errezatuko zuela Iruña zaharreko euskal sinestunen artean, eta Anabel Arrazari igorri nion zinez eta faxez Barrankara. Geroztik ez dut deusen berririk ukan. Orain hurrena, giltzurdin batetik arrunt gaizki omen dabilela Sara, eman didate aditzera Goenkalen. Berria txertatuko ote dioten, gorroto duen aitaren zaharra, alegia. Nere letani gaiztoagatik izandu ote da? Kezkatu egin naiz, Eta, gaur iluntzean, gure aktorea bihotzekoaz oroitzean, giltzurdin puska hauxe txertatzea erabaki dut euskararen gibelean, Sararen gisako lagun antzesle guziei, balikebale, nere oinazea haragi bizitan erakutsiz:

Lagunok:
Hitza eskatu didate niri
Eta zuengan egin nahi nuke haragi

Lagunok:
Euskaraz mintzatu behar badugu
Mintza gaitzen
Baina lagunok
Mintza gaitzen bizitzeko
Eta ez euskara bizitzeko.

Lagunok:
Ez dugu nahi haragi gabeko hezur hutsik.
Hitzen eskeleto xuriak ez digu ematen pozik

Lagunok:
Euskaltzain eta filologoen etsaiak gara gu
Guretzako hitzak ez dira apaletan altxatzeko hartxuriak
Geure hatsez edo herdez zikindutako kristal biziak baizik

Eta lagunok
Kristal biziokin osatzen dugu geure ispilua
Eta ispilu honetan geure burua sumatzean
Haserretu, poztu, edo ikaratu egiten gara

Lagunok:
Euskaraz egin nahi badugu,
Ez dugu nahi egin euskara xuriz janzteko,
Geure arima euskaraz nabar erantzeko baizik.

Ez lagunok
Ez begiratu niri horren ixil eta goibel,
Mihia dugu eta zimeltzen ez den lore.

Bai ederra, hizketa haragitu gurea.

Lagunok: egin dezagun trufa eta irri
Euskaraz urte osoa da eta udaberri.

Ziria

• Motxorrosolo •

Festen ingurura

HORRELAKOETAN ASMATZEN OMEN DU, DENA DU ALDE. JAI GIROAN erraztasuna da nagusi. Lozorroan sartzeko egokiera. Gabeziak izkutatze tenore aproposa. Sekulan beteko ez diren planak. Alta, festa mota ezberdinak egon badira. Zenbaituetan besterik ez bada, gisa ezberdineko etenikak lortzen dituzte. Arrosara muga igarota helduko direnen kopurua ezagutzea besterik ez zaigu falta.

Lupe Ordoki eta Kotte Iantzi

Kalaxka peñako kideak

«Adin tarte guztiek dute beren lekua sanferminetan»

25 urte betetzen ditu aurten Lesakako Kalaxka peñak. Igandean hasiko diren sanferminetan ospakizun ekitaldiak egingo dituzte, urte hondarra bitarte luzatuko direnak. Sanferminek, besta egiteko moduak eta euren taldeak berak izandako aldaketez mintzatu gara.

ZER JENDE BILTZEN DA KALAXKA PEÑAN?

40 urteen bueltan dabilen jendea gara, 41, 42... urte. Gehienek 17 urte genituela sortu genuen taldea. Orduan 17 mutil ginen, eta ordudanik, gure koadrilara hurbildutako jendearekin osatu dugu peña. Neskek parte hartzerik izanen zuten edo ez eztabaidatu izan genuen garai hartan, eta baietz erabaki genuen, baina lehendabiziko urte haietan ez parte hartzea erabaki zuten, eztabaida bera edukitzeagatik. Hala ere, peñakideak ez izan arren elkarrekin ibiltzen ginen. Irrintzi gure arerioak izan diren peñekoekin segitzea erabaki genuen neskek, nahiz eta gero eurekin aritu. Zenbait akta anonimotan nesken parte hartzearen aurka azaldu ziren batzuk.

■ Zertan aldatu da 25 urte hauetan Kalaxka peña?

Gazte izatetik gehienak guraso izatera pasatu gara, eta seme-alabak ditugu. Horrek besta egiteko tenorean anitz murrizten du. Garai hartan lokal bat ere bagenuen. Hura txukuntzen eta konpontzen denbora franko pasatu genuen, afariak egiten genituen, bestak, madalena bestak antolatzen genituen, ibilaldi neurtuak...

■ Eta Lesakako sanferminak zertan aldatu dira?

Hagitz anitz aldatu dira sanferminak, nahiz eta programa bera den. Ohiturak aldatu dira. Txaranga gibeletik ibiltzen ginen egun osoan, eta arratsean musika bukatutakoan ostatuak itxita zeudenez solasean aritzen ginen. Besta gehiago egunez egiten genuen. Gaur egun gaupasak dira bestak, eta egunez denak lo egoten dira.

■ Programak berdintsua izaten jarraitzen badu, zertan aldatuko zenukete?

Zaila da programa aldatzen. Batzuetan pentsatzen dugu kultur ekintza gehiago behar liratekela, baina beharbada ez da sasoirik hoberena, gehiago eskertuko genuke ekitaldi horiek sanferminetatik kanpo balira. Zezenetara jende gutti biltzen da orain lehenagoko aldean. Jende helduarentzako gauza gehiago izaten zen beharbada, diana goizean goiz, txaranga eguerdian...

Gure artean solastu izan gara, nahiz eta jendarean inoiz ez erran, ea noiz atera ahal izanen ginen emakumeak ezpatantzari gisa, Zubigainekoa dantzatzeko. Gure artean anitz solastu izan gara, eta inoiz ez gara haseurretu izan.

■ Nola ospatuko duzue urteurrena?

25. zentenarioa jarri diogu ospakizunei, batzar batean kide batek behin eta berriz esaera hori errepikatu zuelako. Gure koadrila hagitz irekia izan denez, eta kanpoko lagun anitz gurekin ibili izan denez jende hori guztia lokalizatu dugu eta antolatu ditugun ekintza guztietara gonbidatu dugu. San Fermin bezperen, uztaillaren 6an, afari bat antolatu dugu, urtero egiten duguna. Peñen egunean ere bazkaria egingen dugu ohi bezala. Bertze urtetan danborradan ez gara atera izan, baina aurten atera egingen gara, gure haurrekin batera. Baina berezitasunik handiena azken eguneko izanen da. Gure gurasoen garaien bestak bukatzeko Txakainen berendua egiten zen. Guk hori



soslaia

● EDURNE KOCH

ezagutu dugu, baina bestak gero segitzen zuen. Hori bera egin nahi dugu konbentu aitzineko parkean, eta fritada-jate horretara Irrintzi peñakoak ere gonbidatu ditugu. Orain bi urte bete zituzten haiek 25 urteak, eta betidanik gure etsaiak izan dira. Gero txarangarekin dantzan herrira jaisten ginen, eta pieza berezi bat dago, berreskuratu nahi duguna.

Zialdo auzoko madalenak berreskuratu nahi ditugu. Haurrentzako jokoak, herri bazkari bat eta musika antolatu dugu. Udazkenerako mendi martxa bat, Errioxara txango bat, Irrintzi peñakoen aurka urtero egiten dugun futbol partidua... antolatu ditugu.

■ Gazte ez denak lekuri ba aldu sanferminetan?

Dudarik gabe. Adin tarte guztiek bere lekua dute, bakoitzak bere tarte aukeratu behar du. Bakoitzak bere garaiko sanferminak aukeratzeko, guk gure gazte denborakoak, gaur egungoek oraingoak. Danborrada anitz egiten genituen, txaranga gibeletik ibiltzen ginen... eta oraindik besta egiten segitzen dugu.

Bi lesakar hauek Kalaxka peñako kideak dira; Kotte sorreratik, eta Lupe ere bai ia-ia. Bestazale amorratuak dira, baina seme-alabak eta urteak oztopo direla onartzen dute. «Eta eskerrak amariak oraindik bizirik dauden, eskapadaren bat egiteko...»

Lesakar petoak diren heinean, ez dute inoiz hutsik egin Lesakako sanferminetan, eta koadrila norbaitek huts egin badu egoera arraro samarra izanen litzatekela onartzen dute. Iruñeko sanferminetan ere maiz egon izan dira, baina beti Lesakakoak bukatu ondok.

40 bat lagunek, eta horien 56 seme-alabek, osatzen dute egun Kalaxka peña. Lehendabiziko urteetan txapela, blusa eta kalaxka —joarea— soinean eramaten zuten, baina egun blusa baino ez dute eramaten.

■ Zer egin behar da 25 urtez koadrila batek irauteko?

Gure artean beti solastu izan dugu, gauzak argi utzi izan ditugu, nahiz eta iritzi hagitz kontrajarriak eduki. Anitz eztabaidatu dugu, batez ere egoera politikoa berezia bizitu dugulako, baina elkarren errespetuan oinarritu dugu beti gure harremana. Hor egon da, batez ere, 25 urte irautearen sekretua. Urte osoan elkarrekin ibiltzen garen koadrila gara, eta horrek ere, ezbaierik gabe, lagundu egiten du. Bestazaleak gara, eta hori ere garran-

tzitsua bada, umorea izan baitugu beti, eta batez ere bestarako gogoia.

■ Kanpotik datorrenarentzat zein gomendio egiten duzue?

Jende itxia izan arren, sanferminetan hagitz irekiak izaten gara lesakarrak. Eta besta hauek sartzeko hagitz erraza izaten da. Horregatik, ongi pasatzeko asmoarekin etortzea baino ez dugu gomendatzen. Ongi etorria izaten baita jendea egun horietan.

→ Jon Abril

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

Joku demokratikoaren gain

U da hasmentako urrina larrazkeneko hauteskondeez zipriztinduta daukate Mendebaldeko Auzaerkidegoan. Zaila da jakitea zer gertatzen ari den, baina zarakadiaren artean xendaren bat edo bertze atzeman daiteke. Horra, konparaziotako, hango Parlamentuan, -nahita, nahi gabe, ezinbertzean-, sortzen ari den gehiengo, eztabaida gorria ekarri duena. Bixia da zinez, bozketaren horien karterat, Espainiako ele zurien solaslekuetan erraten ari direna, hots, delako indar metaketa horiek hartsa ematen diotela indarkeriari. Urtetan, aho mihitan ibilitako hitz purrustadaren bitartez, goraipatu dute joku demokratikoa, Legebiltzarra santutegi bihurtu arte, eta, orain, joku demokratiko hori haien aldekoa gertatzen ari ez denean, harat honat, zabaltzen ari dira horrek ez duela balio, eta, saiatzen ari dira lejimitatea kentzen, udazkeneko bozetan talde abertzaleen indarra bertzeena baino apalagoa izanen delakoan. Horrexegatik, azken bolada honetan, inkestak plazaratzen ari dira, euren burutazibidearen erakusgarri. Inkestak, ordea, maiz aski, erdiak ustel.

Bizkitartean, gure herrialdean ere inkesta hotsak berriki zabalduta dira eta geurtzeko hauteskondeetan egungo egitura instituzionalaren bi zutarrak nagusiek gora eginen omen dute. Era berean, sozialisten baitako bozetan Egurenen alde jokatu, baina hautagai hori galtzaille ateratu da. Hemen, han ez bezala, eskuindarrek eta sozialistek izan dute beti aginte-makila, hein handiagotan edo txikiagoa. Eta Lizarberen manerak ikusita ez dirudi indar trinko eta hertsiki horretan muntako artesiarik agertuko denik. Ikusiko.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Tutera:** Carlos Abadek gaur, 20.30etan, Lacura tabernan kantatuko du. Bi ordu beranduago Manolo Garciak zezen plazan kontzertua eskainiko du «Arenas en los bolsillos» diskaren aurkezpen gisa. El ultimo de la fila taldearen abeslari ohiak bere estraineko bakarlarari lanaren ehun mila kopia saldu ditu dagoneko
- **Alzoain:** Gigatron taldeak kontzertua eskainiko du, gaur, 23.30etatik aitzina, Artsaia Musik Klubean. Sarrerak 1.000 peza balio du.
- **Sartaguda:** Boicot eta Amenaza Ruina taldeen kontzertua izanen da bihar Jamaica aretoan, 23.00etan.
- **Iruñea:** Sanferminetako barrak politikoek (txoznak), urtero bezala, kontzertuak antolatatu dituzte bestetarako: asteartean, hilaren 7an, Berri txarrak, Skunk eta Hemendik At!; asteazkenean, 8an, Amparanoia, Lehiotikan eta Koma; azkenek, ostegunean, Habeas Corpus, Soziedad Alkoholika eta Betagarri. Kontzertu guztiak Yanguas y Mirandako orubean izanen dira 00.00etan.
- **Alzoain:** Artsaian after bestak (techo dance) egonen dira sanferminetan. Asteartean, 7an, Dj Eneko eta Dj Iker izanen dira, eta, ostiralean, hilaren 10ean, Dj Eneko eta Dj Pollo. Biak 23.00etatik aitzina ospatuko dira, sarrerak 1.200 peza balio duela.

ERAKUSKETAK

- **Lizarrak:** Gustavo de Maeztu museoak hainbat ekimen aurkeztuko du gaur. Arratsaldeko 6etan, Ignacio Zuloagaren hamaika olio-pintura dituen emakumeari buruzko erakusketaren inaugurazio

ekitaldia izanen da. Ordu berean, «Antonio Laita, nire marrazkiak» erakusketa zabalduko da museo II aretoan. Bi ordu beranduago, 20.00etan, Pablo Antoñanaren «Tierra Estella» liburua aurkeztuko dute. Bestetik, Javier Iriarteren instalakuntza ikusteko aukera dago heldu den irailaren 15era arte.

► **Erronkari:** «Nafarroa. Etxe tradizionala» erakusketa ibiltaria Erronkariko udaletxean egonen da hilaren 15a arte. Erakusketa 18.30etatik 20.30etara bisita daiteke. Argazki eta testuez osaturiko paneletan Nafarroako etxe ezberdinei buruzko azalpenak ematen dira. Antzinako tresneria, manikiak, bideo bat eta ordenagailu joku

batek ere laguntzen dute etxe tradizionalen ezaugarriak ezagutzen.

- **Urdain:** Mintxo Ilundainen pinturak ikusgai izanen dira Udaletxeko kultur aretoan, uztailearen 4etik 8ra.
- **Lizaso:** Herriko Kuartelenean, «Nafarroako basoak» erakusketa ikusteko aukera dago hilaren azken eguna arte.
- **Iruñea:** Gaur zabalduko da Inge Morath argazkilari eza-gunaren erakusketa Zapateria 40 aretoan. Orduetgia honako hau da: asteartean 18.30etatik 21.00etara eta larunbatetan zein jaiegunean 11.30etatik 14.00etara. Argazkiak hilaren 26a arte egonen dira ikusgai.
- **Iruñea:** Zezenketari buruzko

Picassoren hogeitasei urtinetz gozatzeko parada izanen du Gotorlekuko Labeara hurbiltzen den edonork. Erakusketa uztailearen 26a arte egonen da irekirik, asteartean 18.00etatik 20.30etara, eta jaiegunean 12.00etatik 14.00etara.

- **Iruñea:** Urte honetako Sanferminetarako kartel lehiaketako kartelik onenak Descalzos 72 aretoan egonen dira uztailearen 26a arte.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Nafarroako Antzerki Eskolak hainbat ikastaro antolatu du udarako. Antzepenena, bertso dramatikoak, ahotsa eszenan, zuzendari-tza eta abarrak trebatu nahi izanez gero, ikastaroetarako izen emate epea uztailearen 20ean bukatuko da, eta San Agustín karrikako 5. zenbakiko NAEko egoitzan aurkeztu beharko da.
- **Alzoain:** Cronicas Marcianas telebista programako umorista den Mariano Marianoren emanaldia egonen da bihar, 23.30etan, Artsaia Musik Klubean.
- **Iruñea:** IKAK eta AEKk euskara ikasteko edo maila hobetzeko aukera eskaintzen du udan. Iruñeritik hasi eta hainbat herritako zerrenda luzea du. Orduetgia eta maila guztiakdaude aukeran. Informazioa eta izen ematea 948-22-22-46 / 63-77-96 edota 22-02-13 / 21-04-33.
- **Iruñea:** IPESek umeentzako euskara tailerrak antolatatu ditu abuztuan. Tailerrak abuztuaren 3an hasiko dira eta hilaren 28ra arte iraunen dute astelehenera ostiralera, bi hamabostalditan. Izena eman eta informazioa lortu nahi duenak 22-59-91 telefonora deitu behar du.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

